




Azken egunotan danborradako entseguak egiten aritu dira.  ALTZAKO JAI BATZORDEA

Giza proba San Martzial jaietan, hogeitaz urteren ostean

Gaur hasi eta uztailaren 2ra arte festa giroa izango da nagusi Altzan. Altzatarra elkarteak eta iaz auzoko hainbat gazterekin sortu zuten jai batzordeak antolatu dituzte festak, elkarrekin.

🔗 Sara Ibarburen Etxeberria

Altzatarra elkarteak arduratu izan da urte luzez auzoko San Martzial jaiak antolatzeaz. Elkarteko zuzendaritza batzordea bi urtean behin aldatzen dute, ordea, eta batzuentzat jaien ardura lan handiegia zela eta, denak ez ziren horiek antolatzeko prest egoten. «Altzako gazte batzuekin elkartu eta jai batzorde bat sortzea lortu dugu

berriki», azaldu du Joseba Azpeitiak, Altzatarra elkarteko eta jai batzordeko kideak. Azpeitiaren arabera, aurtengoa gazteekin elkarlanean aritzen diren bigarren urtea izango da: «Lehenengo urtean, oso ondo aritu ginen elkarrekin, eta espero dut aurtengoa ere oso ondo joatea».

Iaz, garai batean egiten zen soka dantza berreskuratu zuten, eta gaur

ere, jaiari hasiera emateko, horixe egingo dute, Mystic konpartaren eskutik eta Ekialdeko Barrutiko ordezkariekin. Ondoren, brindisa egingo dute Altzako bizilagun berriei ongietorria emateko, Altxa Kantuzek gidatutako kantujirarekin.

Giza proba, 20 urteren ostean

Aurtengo berritasunei dagokionez, herri kirolak antolatu dituzte berriaz, aspaldiko partez. «Lehen egiten genituen erakustaldiak, baina urte batzuetan ezin izan genituen programatu. Ordea, aurtengoa berriro sartu ditugu», zehaztu du Azpeitiak. Beraz, Izeta eskolaren eskutik, harri jasotzaileak eta aizkolariak ikusteko aukera izango da Altzan igandean, 12:30ean. Gainera, bihar, giza proba egingo dute lehen aldiz, auzoko gazteekin. «Giza proba urte batean egin zen, duela hogeitaz urte inguru, baina ordutik ez dugu berriro antolatu, orain arte», adierazi du Azpeitiak. Lehenengo urtean lehen aldiz antolatu zuten beste jarduerara bat herri bazkaria izan zen, festak auzora gehiago

zabaltzeko eta jende gehiagok gozatzeko asmoz. Izan ere, lehen, batzuei iruditzen zitzairen jai hauek ez zirela oso parte hartzaileak, eta gehiago zirela Altzatarra elkarteko jendearentzat. Beraz, sagardotegi moduko bat prestatu zuten, San Martzial plazan. «Aurten ere berdintsua izango da, baina udalak traba dezente jarri zizkigun arrautzekin. Beraz, tortillen orde, entsaladak jarriko ditugu aurten», azaldu du jai batzordekoak.

Bestalde, iaz sortu zuten jai batzordeak txosna bat jartzea pentsatu zuen, jaiak ordaintzeko dirua biltzeko. Harrera ona izan zuen, eta aurten ere bertan izango dute,

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere txosna jarriko dute sanmartzialetan, eta jaiak ordaintzeko erabili nahi dute lortzen duten dirua

eztarriak freskatu ahal izateko. «Garai batean, Tximistegieta mendizale elkarteak jartzen zuen txosna, eta iaz berriro jarri genuen. Dirua ateratzeko asmoz jarri genuen, jai batzordea zerotik hasten zelako, eta elkartearen lortzen zen diru guztia jaietan gastatzen zelako. Auzoan oso aurrekontu txikia daukagu, eta jai batzordeari txosna jartzea egokia iruditu zitzaigun horri buelta emateko. Aurten, berriro jarriko dugu, eta ea horrekin dena babesteko aukera dugun», adierazi du.

Jaiak, elkarlanari esker

Azpeitiak auzoko gazteak eta Altzatarra elkarteak elkarrekin lortzen ari direna nabarmendu du: «Orain arte, ez ze inor animatzen jai batzordea eta laguntzera, eta aipatu nahi dut elkarteari erraztasuna ematen digutela nahi duguna egiteko, eta Altzako gazte batzuk buru-belarri sartu direla jai batzordean. Elkarlanerako jarrera aktiboa dago, nahiz eta adin desberdinetako jendea egon». ●



Herri bazkari jendetsua egin zuten iaz Altzako sanmartzialetan. **BEÑAT PARRA**

OSTIRALA 28

17:30

PausokDancen dantza modernoa.
Herri Ametsaren euskal dantza.

18:30

Jai hasiera, Mystic konpartsaren eskutik.
Soka dantza, Ekialdeko Barrutiko ordezkariekin.

19:00

Brindisa altzatar berriei. Kantujira Altza Kantuzek gidatuta.

19:15

Emakumezkoen pala txapelketa (gomazko pilotarekin).

20:00

Buruhandiak. Altza Herria IV. esku pilota finala.

20:30

Altzatarra danborradarako eta nahi duenarentzako afaria.

22:30

Danborrada, Pasai txarangarekin.
Bull DJ-a.

00:00 · San Martzial plazan

Ereserkia, Pasai txarangarekin.

00:15

Bull DJ-a.

LARUNBATA 29

10:00 · Plaza gorrian

Elkartasun azoka
ASGINCER-en eskutik.

11:00-14:00 · Altza ikastetxeko patioan

Puzgarriak.

12:00 · Plaza gorrian

Sevillanak, Alma, Corazon y
Baileren eskutik.

12:00 · Probalekuan

Giza proba Altzako gazteekin.

13:00

Pilota partida: Titin III - Koka / Bengoetxea
VI - Goñi II.
Zumba, ASGINCER-en eskutik.

14:30 · San Martzial plazan

Herri bazkaria.

17:00 · Plaza gorrian

Showtime taldearen dantza.

17:30

Elektro Buiaka elektrotxaranga.

19:30

Buruhandiak, kaleetan zehar.

20:00

Eslaba maisuaren Salbea.



Agintarien soka dantza berreskuratu zuten iaz, eta aurten ere egingo dute.  ALTZAKO SAN MARTZIAL JAIAK

20:15

Salsa ikastaroa Elena Avila eta Ivan Bermejoren eskutik.

22:00 - Plaza gorrian

Arra DJ-a.

23:00

Itzal erromeria.

00:00

Zezensuzkoa.
Ondoren, Itzal erromeria.

IGANDEA 30

09:00

Diana kaleetan zehar, txistulariekin.

10:00 - San Martzial plazan

Auto klasikoen topaketa (+30).

11:00 - San Martzial parrokian

Meza nagusia, Altzako deun gorenaren omenez.

11:30

Bolo jaurtiketa.

12:30

Herri kirol erakustaldia, Izeta eskolaren eskutik: harri jasotzea eta aizkolaria.

16:30

Reuelta anaien eta Jesus Etxebesteren kantaldia.

18:00

Tio Teronen Semeaken emanaldia.

19:00

XXVI. Sagardo Eguna.

20:00

Buruhandiak.

20:30

Lee Junior musikariaren emanaldia.

ASTELEHENA 1

11:30

Toka txapelketa bazkideentzat, NAO etxeak antolatuta.

12:00-14:00 - Polikiroldegian

Urezko puzgarriak. Izen ematea ekainaren 24tik aurrera, kiroldegian bertan.

12:00

Marrazki lehiaketa, La Mas Kukik antolatuta. Lehiaketaren oinarriak egun batzuk lehenago argitaratuko dira.

13:00

Patata tortilla eta postre lehiaketa.



Idi demak ikusteko eta sagardoa dastatzeko aukera egon ohi da uztailaren 2an. **📺 B. PARRA**



ASTEARTEA 2

11:30 · San Martzial parrokian

Meza nagusia.

10:45

XXXII. Sagardo Lehiaketa.

12:00 · Udal probalekuan

Idi demak.

13:00

Bertsolariak: Jesus Mari Irazu eta Agin Laburu. Gai jartzailea: Joseba Alkiza.

14:30 · Altzatarra elkarte

Anaitasunezko bazkaria, bertsolariekin.

18:00 · Udal probalekuan

Idi demak.

16:00 - 18:00

Aurpegi margoketa, Maider Ferreira profesionalaren eskutik.

16:30 - 18:30

Saskibaloia familian. Jolasak eta jaurtiketa lehiaketak Askatuaken eskutik.

17:00 · San Martzial plazan

Haur jolasak.
NAO etxean ospaturiko txapelketen sari banaketa.
Ondoren, luntxa eta dantza.

18:00

Lau idi bikoteen pisaketa.

18:00

Frontenis txapelketa, altzatar gazteentzat.
Apar festa eta txokolate jana.
NAO etxeko Estherren lankidetzarekin.

19:00 · Plaza gorrian

Potx magoaren ikuskizuna.

19:45

Buruhandiak.

20:00

Marrazki lehiaketako sari banaketa.

20:30

Sardina jana.



Ondo pasa Altzako
San Martzial Jaietan!




Ikasi
gurekin!

Donostia erdialdean, ☎ 943 46 46 55
Prim kalea, 9 (Gernika pasealekua)
20006 Donostia-San Sebastián
info@urumeaeuskaltegia.eus

www.urumeaeuskaltegia.eus



Altzan, ☎ 943-40 03 16
Txapiñenea kalea, 1
20017 Donostia-San Sebastián
altza@urumeaeuskaltegia.eus